EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

36. Euskal Soziometroa
Sociómetro Vasco 36



2008ko martxoa
Marzo 2008

http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / *INTRODUCCIÓN* **1**

LABURPENA / *SÍNTESIS* **3**

A – EGOERAREN BALORAZIOA / *VALORACIÓN DE LA SITUACIÓN* **7**

- **EAEko arazo nagusiak** / *Principales problemas de la CAPV* 8
- **EAEko eta Estatuko egoera** / *Situación de la CAPV y del Estado* 13
- **EAEko eta Estatuko egoeraren bilakaera** / *Evolución de la situación de la CAPV y del Estado* 15
  - o **EAEko egoeraren bilakaera** / *Evolución de la situación de la CAPV* 16
  - o **Estatuko egoeraren bilakaera** / *Evolución de la situación del Estado* 17
- **Demokraziaren funtzionamendua EAEn eta Estatuan** / *Funcionamiento de la democracia en la CAPV y en el Estado* 18
  - o **EAEn** / *En la CAPV* 19
  - o **Estatuan** / *En el Estado* 20
- **Giza eskubideen errespetua EAEn eta Estatuan** / *Respeto a los derechos humanos en la CAPV y en el Estado* 21
  - o **EAEn** / *En la CAPV* 22
  - o **Estatuan** / *En el Estado* 23
- **Ideia politiko guztiak defendatzeko aukerak EAEn eta Estatuan** / *Posibilidades para defender cualquier idea política en la CAPV y en el Estado* 24
  - o **EAEn** / *En la CAPV* 25
  - o **Estatuan** / *En el Estado* 26
- **Politikaz hitz egiteko askatasuna** / *Libertad para hablar de política* 27

B – JARRERA POLITIKOAK / *ACTITUDES POLÍTICAS* **30**

- **Politikarekiko interesa** / *Interés por la política* 31
- **Politikarekiko interes ezaren arrazoiak** / *Motivos de la falta de interés por la política* 33
- **Politikarekiko interesaren bilakaera** / *Evolución del interés por la política* 35
- **Politikarekiko interesa galtzeko arrazoiak** / *Motivos de la pérdida de interés por la política* 36
- **Politikaz hitz egiteko maiztasuna** / *Frecuencia con la que se habla de política* 38
  - o **Familiarekin** / *Con la familia* 39
  - o **Lagunekin** / *Con las amistades* 40
  - o **Lankide edo ikaskideekin** / *Con las y los compañeros de trabajo o estudios* 41
- **Etxean politikaz hitz egitearen oroimena** / *Recuerdo de hablar de política en casa* 42
- **Politika-gaien ulermena** / *Comprensión de temas políticos* 44
- **Albiste politikoen jarraipena** / *Seguimiento de noticias políticas* 46
  - o **Egunkarietan** / *En los periódicos* 47
  - o **Telebistan** / *En la televisión* 48
  - o **Irratian** / *En la radio* 49
- **Ekimen politiko eta sozialetan parte hartzea** / *Participación en acciones políticas y sociales* 50
- **Alderdi politikoekiko begikotasuna** / *Simpatía por los partidos políticos* 53
- **Buruzagi politikoen balorazioa** / *Valoración de líderes políticos* 55
- **Independentziari buruzko jarrera** / *Actitud respecto a la independencia* 57
- **Zenbait gaurkotasun-gairi buruzko informazioa** / *Información sobre temas de actualidad* 60
- **Zenbait gaurkotasun-gertakariren balorazioa** / *Valoración de sucesos de actualidad* 63

C – HAUTESKUNDEAK / *ELECCIONES* 66

- **Hauteskunde garrantzitsuenak** / *Elecciones más importantes* 67
- **Hauteskunde Orokorren garrantzia** / *Importancia de las Elecciones Generales* 69
- **Botoa erabakitzeko faktoreak** / *Factores decisivos para el voto* 71
- **José Luis Rodríguez Zapatero eta Mariano Rajoyren balorazioa** / *Valoración de José Luis Rodríguez Zapatero y Mariano Rajoy* 73
- **Hauteskunde Orokorren emaitzekiko nahia** / *Preferencia sobre el resultado de las Elecciones Generales* 75
- **Gobernu berriaren lehentasunak** / *Prioridades del nuevo gobierno* 76

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / *FICHA TÉCNICA* 78

Sarrera / *Introducción*

Helburuak eta informazioaren iturria / *Objetivos y origen de la información*

Ikerketa honen **helburua** euskal herritarrok nolakoak garen jakitea ez ezik, denboran zehar gure jarrera politiko orokorretan eta gure inguruko egoerari buruzko iritzietan nola aldatzen garen ezagutzea ere bada.

Europar Batasuneko herrialdeekiko zein Espainiako Estatuko beste autonomia erkidego batzuekiko ditugun antzekotasun eta desberdintasunak ere ezagutu nahi ditugu.

Ikuspegi deskribatzaile, ebolutibo eta konparatibo honek gidatuko ditu ondoko orriok.

Txosten hau Euskal Soziometroen bildumaren **2008ko lehenengo ekarpena** da eta euskal gizartearen argazkia ematen digu. Aurkeztutako emaitzak bildumaren 36. ikerketan erabilitako berariazko galdesortatik datoz. Ikerketa hori 2008ko urtarrilaren 15a eta 29a bitartean gauzatu da.

El **objetivo** de este estudio es conocer, cómo somos los vascos y vascas y cómo vamos evolucionando a lo largo de los años en relación a nuestras actitudes políticas y a la valoración que hacemos de la situación de nuestro entorno.

También queremos conocer las similitudes y diferencias que presentamos respecto a los distintos países de la Unión Europea o a otras comunidades autónomas del Estado Español.

Este enfoque descriptivo, evolutivo y comparativo es el que va a guiar las páginas que siguen.

Este informe es la **primera aportación del año 2008** a la serie de Sociómetros Vascos y constituye un retrato de la realidad social vasca. Los resultados presentados proceden de un bloque de preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio nº 36 de la serie, realizado entre el 15 y el 29 de enero de 2008.

Kolektibokako azterketa / *Análisis por colectivos*

Inkestaren datuak biztanleria guztirako ez ezik **segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoen arabera** ere aztertu dira. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko eta jarrerazko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia* eta *Gipuzkoa*.
- Sexua: *gizonezkoa* eta *emakumezkoa*.
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64* eta *>=65*.
- Politikarekiko interesa*: handia edo nahikoa, gutxi, batere ez.*
- Begikotasun politikoa (Eusko Legebiltzarrean daudenetatik, begikotasunik handiena eragiten dion partidua): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, bat ere ez, denak berdin, ed/ee.*

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas**. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia* y *Gipuzkoa*.
- Sexo: *varón* y *mujer*.
- Grupos de edad: *18-29*, *30-45*, *46-64* y *>=65*.
- Interés por la política*: Mucho o bastante, poco, nada.*
- Simpatía política (partido del Parlamento Vasco por el que siente más simpatía): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, ninguno, todos por igual, ns/nc.*

Laburpena / *Síntesis*

Nola ikusten dugu EAEko eta Estatuko gaur egungo egoera?

Herritarren ustez, EAEko arazo nagusiak etxebizitza (%56k aipatua), lan merkatua, hau da, langabezia, lan baldintzak eta abar (%53) eta indarkeria eta terrorismoa (%44) dira. Atzetik datoz arazo ekonomikoak (%19), Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa (%18) eta immigrazioa eta hari lotutako arazoak (%7). Gainerako arazo bakoitza biztanleriaren %6k baino gutxiagok aipatu ditu.

Herritarrek ontzat jo dituzte bai EAEko egoera (5,8 puntu 0 eta 10 arteko eskalan) baita Estatukoa ere (5,1 puntu). Iritzirik zabalduena egoera hori azken lau urteotan ez dela aldatu dioena da. Dena dela, EAEren egoerak hobera egin duela uste dutenak okerrera egin duela uste dutenak baino gehiago dira, eta Estatuko egoerari dagokionean antzerako taldeak osatzen dituzte iritzi bata zein bestea dutenek.

EAEn demokraziak duen funtzionamenduarekin pozik daudenak pozik ez daudenak baino gutxiago dira, eta Estatuan duenarekin are poztasun txikiagoa adierazi dute herritarrek. Antzera gertatzen da EAEn eta Estatuan dagoen giza eskubideekiko errespetuari buruzko iritzietan. Ideia politiko guztiak defendatzeko dauden aukerekiko poztasun falta are handiagoa da, baina kasu honetan ia ez dago alderik EAEri eta Estatuari buruzko iritzien artean.

Herritarren laurden bat inguru libre sentitzen da jende guztiarekin politikaz hitz egiteko, erdiek diote pertsona batzuekin bakarrik sentitzen direla libre eta bostetik batek ez dela ia inorekin libre sentitzen. Politikaz hitz egiteko askatasun sentsazioan galera nabarmena gertatu da aurreko urteekiko.

Nolako jarrera politikoak ditugu?

Politikarekiko interesa ez dago oso zabaldua EAEko herritarren artean (%72k interes gutxi edo batere ez dute). Interes falta horretarako arrazoi nagusitzat ondokoak aipatu dituzte: politikariek ez dutela agindutakoa betetzen, gezurrak esaten dituztela (%35ek aipatua), alderdiek boterea eta aberastea bakarrik bilatzen dutela eta euren interesei begiratzen dietela (%18), egoera beti berdina dela, gai berari bueltaka gabiltzala eta gatazkari ez zaiola irtenbiderik aurkitzen (%16) eta herritarrei beste gai batzuk gehiago interesatzen zaizkiela (%13).

Herritar gehienek diote beren politikarekiko interes maila ez dela aldatu azken urteotan, baina gehiago dira lehen baino interes gutxiago dutenak interes handiagoa dutenak baino. Politikarekiko interesa galdu dutenek (herritarren %28), ondokoak adierazi dituzte horren arrazoi nagusitzat: politikariek ez dutela agindutakoa betetzen eta gezurrak esaten dituztela (%24k aipatua), egoera beti berdina dela, gauza berari bueltaka gabiltzala eta ez zaiola gatazkari irtenbiderik aurkitzen (%16), alderdiek boterea eta aberas-

¿Cómo vemos la situación actual de la CAPV y del Estado?

En opinión de la ciudadanía, los principales problemas de la CAPV son la vivienda (mencionada por un 56%), el mercado laboral, es decir el paro, las condiciones de trabajo, etc. (53%) y la violencia y el terrorismo (44%). Les siguen los problemas económicos (19%), el conflicto y la situación política del País Vasco (18%) y la inmigración y los problemas relacionados con ella (7%). El resto de los problemas han sido mencionados por menos de un 6% de las y los ciudadanos cada uno.

Las y los ciudadanos aprueban tanto la situación de la CAPV (5,8 puntos en una escala de 0 a 10) como la del Estado (5,1 puntos). La opinión más extendida es la de que esa situación no ha variado en los últimos cuatro años. Sin embargo, son más quienes creen que la situación de la CAPV ha mejorado que quienes creen que ha empeorado, y con respecto a la situación del Estado, ambas opiniones son sostenidas por grupos de tamaño similar.

Quienes están satisfechos con el funcionamiento de la democracia en la CAPV son menos que quienes están insatisfechos, y la insatisfacción con el funcionamiento que tiene en el Estado es aún mayor. Lo mismo sucede en relación a las opiniones sobre el respeto a los derechos humanos en la CAPV y en el Estado. En cuanto a las posibilidades que hay para defender todas las ideas políticas la insatisfacción es aún mayor, aunque en este caso casi no hay diferencia entre las opiniones sobre la CAPV y sobre el Estado.

Alrededor de una cuarta parte de la población se siente libre para hablar de política con todo el mundo, la mitad dice que se siente libre sólo con algunas personas y uno de cada cinco que no se siente libre para hablar de política con casi nadie. La sensación de libertad para hablar de política ha disminuido notablemente con respecto a años anteriores.

¿Cómo son nuestras actitudes políticas?

El interés por la política no está muy extendido entre las y los ciudadanos de la CAPV (un 72% tiene poco o ningún interés). Las razones más mencionadas para explicar esa falta de interés son las siguientes: que las y los políticos no cumplen lo prometido, mienten (mencionado por un 35%), que los partidos sólo buscan el poder y el enriquecimiento y miran por sus intereses (18%), que la situación es siempre igual, estamos siempre dando vueltas al mismo tema, y no se encuentra solución al conflicto (16%), y que otros temas interesan más a la ciudadanía (13%).

La mayoría de las y los ciudadanos dicen que su grado de interés por la política no ha variado en los últimos años, pero son más quienes están menos interesados que antes

tasuna besterik ez dutela bilatzen eta euren interesei begiratzen dietela (%12) eta etsipena, ilusioa galdu dutela (%11).

Hamar herritarretatik lauk baino gutxixeagok hitz egiten dute askotan edo noizean behin politikaz familiarekin eta ia beste horrenbestek lagunekin. Gutxiagok hitz egiten dute politikaz ikaskide edo lankideekin. Herritarren erdiek diote haurrak edo gaztetxoak zirenean euren etxean ez zela ia inoiz politikaz hitz egiten.

Herritarren laurden batek dio politika gaiak ondo ulertzen dituela, %37k hala-hola ulertzen dituztela eta %28k gutxi edo batere ez dituztela ulertzen. Dena dela, gehienek albiste politikoak jarraitzen dituzte komunikabide desberdinetan, batez ere telebistan.

Hainbat ekimen politiko eta sozialen artetik, EAEko herritarrek gehien egiten dituztenak ondokoak dira: eskaerak sinatu (%19k egin dute azken urtean), baimendutako manifestazioetan parte hartu (%17k), produktu jakin batzuk erosi arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoengatik (%13k) eta grebatan parte hartu (%11k). Gutxiago dira sindikatu bati edo erabaki publikoetan eragiteko antolatutako talde bati lagundu diotenak, kanpaina politiko baten eranskailua edo bestelako ikurren bat eraman dutenak, eta produktu batzuei boikota egin diotenak, eta are gutxiago bestelako ekimen politiko eta sozialetan parte hartu dutenak.

Alderdi politikoen artetik EAJk bakarrik lortu du herritarren oniritzia (5 puntu 0-10 eskalan). Ondoren datoz PSE-EE (4,4), EA (3,7), EB (3,5) eta Aralar (3,3) eta azkenik EHAK (2,9), Batasuna (2,8) eta PP (2,0).

Buruzagi politikoen artetik Ibarretxe Lehendakariak bakarrik jaso du herritarren oniritzia (5,4 puntu). Puntuaziorik baxuenak Rosa Díez (2,4), María San Gil (2,3) eta Mariano Rajoyrentzat (2,0) dira.

EAEko gizartea oso zatitua dago Euskal Herriaren independentziari buruzko jarrerari dagokionean eta herritarren heren bat inguru egoeraren arabera alde edo kontra leudeke.

Azken hilabeteotako zenbait gertakariren balorazioa egitean Abiadura Handiko Trenaren proiektua aurrera eramatea, Lehendakariak proposatutako kontsulta eta Eusko Jaurlaritzak eta udalek etxebizitzaren inguruan hartutako neurriak ondo baloratu dituztenak gehiago dira gaizki baloratu dituztenak baino. Aldiz, alderdiak legez kanpo uztea, ezker abertzaleko sektore batzuen kontrako epaiketak eta Lehendakaria epaitegietara eramatea, jende gehiagok baloratu ditu gaizki ondo baino.

que quienes lo están más. Quienes han perdido interés por la política (28% de la población) aducen los siguientes motivos: que las y los políticos no cumplen lo prometido y mienten (mencionado por un 24%), que la situación es siempre la misma, estamos siempre dando vueltas a lo mismo y no se encuentra solución al conflicto (16%), que los partidos sólo buscan el poder y el enriquecimiento y miran por su interés (12%) y la decepción y la pérdida de ilusión (11%).

Algo menos de cuatro de cada diez ciudadanas y ciudadanos hablan a menudo o de vez en cuando de política con su familia y casi otros tantos con las y los amigos. Son menos quienes hablan de política con las y los compañeros de trabajo o estudios. La mitad de la población dice que cuando era niño o adolescente en su casa casi nunca se hablaba de política.

Una cuarta parte de la población dice entender bien los temas de política, un 37% los entiende regular y un 28% entiende poco o nada. Sin embargo, la mayoría sigue las noticias políticas en los distintos medios de comunicación, sobre todo por televisión.

De entre diversas acciones políticas y sociales, las que más realizan las y los ciudadanos de la CAPV son: firmar peticiones (un 19% lo ha hecho el último año), participar en manifestaciones autorizadas (17%), comprar determinados productos por razones políticas, éticas o medioambientales (13%) y participar en huelgas (11%). Son menos quienes han colaborado con algún sindicato o algún grupo organizado para influir en las decisiones públicas, quienes han utilizado una pegatina o un símbolo de una campaña política y quienes han boicoteado ciertos productos, y menos aún quienes han participado en otro tipo de acciones políticas y sociales.

El PNV es el único partido político que logra el aprobado de la ciudadanía (5 puntos en una escla ade 0 a 10). Le siguen PSE-EE (4,4), EA (3,7), EB (3,5) y Aralar (3,3) y por último EHAK (2,9), Batasuna (2,8) y PP (2,0).

El Lehendakari Ibarretxe es el único líder político al que aprueban las y los ciudadanos (5,4 puntos). Las puntuaciones más bajas son para Rosa Díez (2,4), María San Gil (2,3) y Mariano Rajoy (2,0).

La ciudadanía se muestran muy dividida con respecto a la independencia del País Vasco y en torno a un tercio estaría o no de acuerdo con ella dependiendo de las circunstancias.

Al valorar diversos sucesos de la actualidad de los últimos meses, la realización del proyecto de Tren de Alta Velocidad, la consulta propuesta por el Lehendakari y las medidas en relación a la vivienda adoptadas por el Gobierno Vasco y los ayuntamientos reciben más valoraciones positivas que negativas. Por el contrario, la ilegalización de partidos, los juicios contra sectores de la izquierda abertzale y el proceso judicial contra el Lehendakari reciben más valoraciones negativas que positivas.

Zein iritzi genituen martxoaren 9ko Hauteskunde Orokorrei buruz, izan aurretik?

Herritarren ustez hauteskunderik garrantzitsuenak Orokorrak (%28) eta Autonomikoak (%25) dira. Gutxiagok aipatu dituzte Udaletakoak (%17) eta Europakoak (%3). Zehazki, martxoaren 9ko Hauteskunde Orokorrak oso garrantzitsutzat jo zituzten herritarren %25ek eta nahikoa garrantzitsutzat %34k.

Botoa emateko asmoa zutenen eta zalantzan zeudenen artean, botoa erabakitzeko orduan garrantzirik handiena proposamen edo programei ematen dietela esan zuten %43k eta alderdiari %36k.

Espainiako Gobernuko Presidente izateko aukerarik handienak zituzten bi hautagaien balorazioa egitean, José Luis Rodríguez Zapateroren jarduera Mariano Rajoyrena baino askoz hobeto baloratu zuten herritarrek, eta gehienek nahiago zuten Estatuan hauteskundeak PSOEk irabaztea PPk irabaztea baino.

Gobernu berriaren lehentasunak zeintzuk izan beharko liratekeen galdetuta, etxebizitzak denon eskura izatea, denentzako lan duina eta euskal gatazkari irtenbidea bilatzea aipatu dira gehien.

¿Qué opinábamos sobre las Elecciones Generales del 9 de marzo, antes de que se produjeran?

En opinión de las y los ciudadanos las elecciones más importantes son las Generales (28%) y las Autonómicas (25%). Son menos quienes han mencionado las Municipales (17%) y las Europeas (3%). En concreto, las Elecciones Generales del 9 de marzo han sido calificadas como muy importantes por un 25% y bastante importantes por un 34%.

Entre quienes tenían intención de votar o tenían dudas, un 43% dijeron que el factor más importante al decidir el voto eran las propuestas y programas, y un 36% el partido.

Al valorar a los dos candidatos con más posibilidades de convertirse en Presidente del Gobierno Español, la actuación de José Luis Rodríguez Zapatero era mucho mejor valorada que la de Mariano Rajoy, y la mayoría prefería que en el Estado el PSOE ganara las elecciones, frente a que las ganara el PP.

Al ser preguntados sobre las que deberían ser las prioridades del nuevo gobierno, las más mencionadas son viviendas asequibles para todos y todas, trabajo digno para todos y todas y buscar una solución al conflicto vasco.

A – Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

- EAEko arazo nagusiak / *Principales problemas de la CAPV*
- EAEko eta Estatuko egoera / *Situación de la CAPV y del Estado*
- EAEko eta Estatuko egoeraren bilakaera / *Evolución de la situación de la CAPV y del Estado*
- Demokraziaren funtzionamendua EAEn eta Estatuan / *Funcionamiento de la democracia en la CAPV y en el Estado*
- Giza eskubideen errespetua EAEn eta Estatuan / *Respeto a los derechos humanos en la CAPV y en el Estado*
- Ideia politiko guztiak defendatzeko aukerak EAEn eta Estatuan / *Posibilidades para defender cualquier idea política en la CAPV y en el Estado*
- Politikaz hitz egiteko askatasuna / *Libertad para hablar de política*

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko arazo nagusiak / *Principales problemas de la CAPV*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / *TOTALES Y EVOLUCIÓN)*

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /
*En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco? **



* ERANTZUNAK ESPONTANEOAK DIRA. HIRU ERANTZUN EMAN AHAL ZIREN / *LAS RESPUESTAS SON ESPONTÁNEAS. SE PODÍAN DAR HASTA 3 RESPUESTAS.*

☑ Herritarren ustez EAEko arazo nagusiak etxebizitza, lan merkatua (langabezia, lan baldintzak) eta indarkeria eta terrorismoa dira. Gutxiago aipatu dira arazo ekonomikoak, Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa, eta immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak.

☑ Azken neurketekin alderatuz, nabarmen ugaritu dira arazo ekonomikoen aipamenak eta aldiz, pixka bat urritu dira etxebizitza, Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa eta immigrazioaren ingurukoenak.

☑ En opinión de la ciudadanía, los principales problemas de la CAPV son la vivienda, el mercado laboral (el paro, las condiciones laborales) y la violencia y el terrorismo. Han sido menos mencionados los problemas económicos, el conflicto y la situación política del País Vasco, y la inmigración y los problemas relacionados con ella.

☑ Respecto a las últimas mediciones, han aumentado de manera notable las menciones de los problemas económicos y, por el contrario, han disminuido ligeramente las menciones de la vivienda, el conflicto y la situación política en el País Vasco y la inmigración y los problemas derivados de ella.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko arazo nagusiak / *Principales problemas de la CAPV*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /
*En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco? **

	2008KO URTARRILA *ENERO 2008*	LURRALDEA / *TERRITORIO* ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ETXEBIZITZA / *VIVIENDA*	56	49	56	59
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZENGONKORTASUNA, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK…) / *MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALES: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES LABORALES…)*	53	42	61	44
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / *VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO DE PAZ*	44	42	47	40
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / *PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)*	19	16	19	22
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA / *CONFLICTO Y SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO*	18	13	16	24
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,…) / *INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,…)*	7	7	9	5
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / *SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL*	5	8	5	4
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / *DELINCUENCIA E INSEGURIDAD CIUDADANA*	5	4	7	1
PENTSIOAK / *PENSIONES*	4	2	4	6
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOA, APARKALEKUAK,…) / *INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,…)*	4	4	3	4
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / *FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS*	3	5	4	3
HEZKUNTZA / *EDUCACIÓN*	2	3	3	2
INGURUMENA / *MEDIO AMBIENTE*	2	2	2	2
DROGAK / *DROGAS*	2	4	2	1
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / *PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES*	1	1	1	1
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / *PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA*	1	2	1	2
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,…) / *PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,…)*	1	1	1	1
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA… / *CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO,…*	1	2	1	1
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / *VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES*	1	1	1	0
FAMILIA	1	0	1	0
USTELKERIA ETA IRUZURRA / *CORRUPCIÓN Y FRAUDE*	0	0	1	0
JUSTIZIAREN FUNTZIONAMENDUA / *FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA*	0	1	0	0
BESTE ARAZO BATZUK / *OTROS PROBLEMAS*	2	2	2	2

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO / *SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS.*

☑ Hiru lurraldeetan gehien aipatutako arazoak etxebizitza, lan merkatua eta indarkeria dira; Araban eta Gipuzkoan hurrenkera horretan; Bizkaian lan merkatua etxebizitza baino gehiagok aipatu dute.

☑ Gipuzkoan gainerako lurraldeetan baino gehiagok aipatu dituzte etxebizitza, arazo ekonomikoak eta Euskal herriko gatazka eta egoera politikoa, Bizkaian lan merkatua, indarkeria eta delinkuentzia, eta Araban osasungintzarekin lotutako arazoak.

☑ La vivienda, el mercado de trabajo y la violencia son los tres problemas más mencionados en los tres territorios; en Guipúzcoa y en Álava, por ese orden; en Bizkaia, se ha mencionado más el mercado de trabajo que la vivienda.

☑ En Guipúzcoa se han mencionado más que en el resto de los territorios la vivienda, los problemas económicos y el conflicto y la situación política del País Vasco, en Bizkaia el mercado de trabajo, la violencia y la delincuencia, y en Araba los problemas relacionados con la sanidad.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko arazo nagusiak / *Principales problemas de la CAPV*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II*)

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /
*En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco? **

	2008KO URTARRILA *ENERO 2008*	SEXUA / *SEXO*		ADIN TALDEAK *GRUPOS DE EDAD*			
		GIZONEZKOA *VARÓN*	EMAKUMEZKOA *MUJER*	18-29	30-45	46-64	≥65
ETXEBIZITZA / *VIVIENDA*	56	58	55	69	62	54	35
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZEGONKORTASUNA, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK…) / *MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALE: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES …)*	53	54	52	52	61	57	35
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / *VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO DE PAZ*	44	45	43	30	48	47	50
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / *PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)*	19	19	20	17	18	22	21
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA / *CONFLICTO Y SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO*	18	21	16	20	17	19	16
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,…) / *INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,…)*	7	7	8	7	8	9	4
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / *SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL*	5	4	6	2	4	8	7
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / *DELINCUENCIA E INSEGURIDAD CIUDADANA*	5	4	5	2	5	7	4
PENTSIOAK / *PENSIONES*	4	3	6	0	0	2	20
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOA, APARKALEKUAK,…) / *INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,…)*	4	4	3	5	4	3	2
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / *FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS*	3	2	5	4	4	3	3
HEZKUNTZA / *EDUCACIÓN*	2	2	2	4	3	2	1
INGURUMENA / *MEDIO AMBIENTE*	2	3	1	2	2	2	0
DROGAK / *DROGAS*	2	2	2	2	2	2	1
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / *PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES*	1	1	2	1	2	2	1
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / *PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA*	1	1	2	3	1	0	1
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,…) / *PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,…)*	1	1	1	2	1	1	1
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA… / *CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO,…*	1	1	1	1	1	1	1
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / *VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES*	1	1	1	1	0	1	1
FAMILIA	1	1	0	0	0	1	1
USTELKERIA ETA IRUZURRA / *CORRUPCIÓN Y FRAUDE*	0	0	0	0	1	1	0
JUSTIZIAREN FUNTZIONAMENDUA / *FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA*	0	0	0	0	0	0	0
BESTE ARAZO BATZUK / *OTROS PROBLEMAS*	2	2	2	2	2	1	3

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO / *SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS.*

☑ Ez dago alde handirik gizonezkoen eta emakumezkoen artean, EAEko arazo nagusiak aipatzean. Hala ere, gizonezkoek emakumezkoek baino gehixeago aipatu dituzte etxebizitza eta Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa eta emakumezkoek, aldiz, gehixeago pentsioak eta zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura.

☑ Bestalde, adinaren arabera badaude aldeak: etxebizitza gero eta gutxiago aipatzen da adinean aurrera egin ahala, lan merkatua batez ere 30 eta 64 urte bitartekoek aipatu dute eta indarkeria 30 urte edo gehiagokoek. Azken hori da, izan ere, 65 urte edo gehiago dituztenek gehien aipatutako arazoa. Adin talde horretan gainerakoetan baino gehiagok aipatu dituzte pentsioak ere.

☑ No hay grandes diferencias entre hombres y mujeres con respecto a los problemas principales de la CAPV mencionados. Sin embargo, los hombres mencionan algo más que las mujeres la vivienda y el conflicto y la situación política del País Vasco y las mujeres algo más las pensiones y el funcionamiento y la cobertura de los servicios públicos.

☑ Por otra parte, sí hay diferencias según la edad: la vivienda se menciona cada vez menos según aumenta la edad, el mercado laboral lo mencionan sobre todo quienes tienen entre 30 y 64 años y la violencia las y los de 30 años o más. De hecho, este último es el problema más mencionado por quienes tienen 65 años o más, que también mencionan más que el resto las pensiones.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko arazo nagusiak / *Principales problemas de la CAPV*

(KOLEKTIBOKA III / *POR COLECTIVOS III*)

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /
*En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco? **

	2008KO URTARRILA *ENERO 2008*	BEGIKOTASUN POLITIKOA *SIMPATÍA POLÍTICA*									
		EAJ/ PNV	PSE-EE	PP	EHAK	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ *NINGUNO*	DENAK BERDIN *TODOS POR IGUAL*	ED-EE *NS-NC*
ETXEBIZITZA / *VVIVIENDA*	56	58	58	36	65	60	61	59	54	61	50
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZEGONKORTASUN, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK) / *MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALES: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES…)*	53	54	52	41	56	49	54	52	52	55	58
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / *VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO DE PAZ*	44	51	53	52	14	45	47	49	36	37	44
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / *PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)*	19	20	17	14	15	32	20	22	23	17	20
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA / *CONFLICTO Y SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO*	18	15	10	17	44	20	25	32	16	10	15
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,…) / *INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,…)*	7	9	7	9	7	8	8	5	7	7	5
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / *SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL*	5	6	6	4	2	4	5	1	7	3	7
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / *DELINCUENCIA E INSEGURIDAD CIUDADANA*	5	4	5	5	3	3	6	4	6	4	4
PENTSIOAK / *PENSIONES*	4	6	5	7	1	8	0	0	6	3	3
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOA, APARKALEKUAK,…) / *INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,…)*	4	4	3	4	3	5	7	2	4	3	3
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / *FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS*	3	3	4	2	3	4	4	2	5	3	1
HEZKUNTZA / *EDUCACIÓN*	2	2	2	3	3	3	1	1	3	2	5
INGURUMENA / *MEDIO AMBIENTE*	2	1	0	2	5	2	5	3	2	2	1
DROGAK / *DROGAS*	2	2	2	1	1	2	2	3	1	1	2
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / *PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES*	1	1	0	2	2	3	3	3	2	0	0
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / *PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA*	1	1	1	3	2	1	2	3	1	1	2
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,…) / *PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,…)*	1	1	1	0	0	2	1	1	2	3	2
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA… / *CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO,…*	1	1	0	1	1	0	0	2	1	1	1
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / *VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES*	1	1	1	1	0	1	0	4	0	1	0
FAMILIA	1	1	0	0	1	1	0	1	0	0	2
USTELKERIA ETA IRUZURRA / *CORRUPCIÓN Y FRAUDE*	0	0	0	0	0	1	0	2	1	0	0
JUSTIZIAREN FUNTZIONAMENDUA / *FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA*	0	0	0	1	1	0	2	0	0	0	0
BESTE ARAZO BATZUK / *OTROS PROBLEMAS*	2	2	1	3	3	0	4	2	1	2	3

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO /
SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS.

☑ EAJ, PSE-EE eta PPren jarraitzaileen artean gainerako taldeetan baino gehiagok aipatu dute indarkeria eta terrorismoa. Izan ere, PPren jarraitzaileentzat hori da EAEko arazo nagusia, etxebizitza eta lan merkatuaren gainetik. Aralarren eta EHAKren jarraitzaileek gainerakoek baino gehiago aipatu dute Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa (EHAKrenek etxebizitza ere bai) eta EArenek arazo ekonomikoak.

☑ La violencia y el terrorismo es más mencionado entre quienes simpatizan con PNV, PSE-EE y PP que en el resto de los colectivos. De hecho, para las y los simpatizantes del PP éste es el problema principal de la CAPV, por encima de la vivienda y el mercado laboral. El conflicto y la situación política del País Vasco es más mencionado entre quienes simpatizan con Aralar y EHAK (entre estos últimos también la vivienda) y los problemas económicos entre las y los simpatizantes de EA.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko arazo nagusiak / *Principales problemas de la CAPV*

(ESPAINIAKO ESTATUAREKIKO ALDERAKETA / *COMPARACIÓN CON EL ESTADO ESPAÑOL*)

Zure ustez, zeintzuk dira EAEko hiru arazo nagusiak? * /
*En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la CAPV? **

	EAE 2008KO URTARRILA CAPV *ENERO 2008*	ESPAINIAKO ESTATUA 2008KO URTARRILA** *ESTADO ESPAÑOL ENERO 2008***
ETXEBIZITZA / *LA VIVIENDA*	56	29
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZEGONKORTASUNA, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK…) / *MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALES: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES LABORALES…)*	53	51
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / *VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO PAZ****.	44	35
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / *PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)*	19	40
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA / *EL CONFLICTO Y LA SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO****	18	12
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,…) / *LA INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,…)*	7	24
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / *SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL*	5	6
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / *LA DELINCUENCIA Y LA INSEGURIDAD CIUDADANA*	5	16
PENTSIOAK / *PENSIONES*	4	4
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOA, APARKALEKUAK,…) / *INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,…)*	4	1
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / *FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS*	3	0
HEZKUNTZA / *EDUCACIÓN*	2	4
INGURUMENA / *MEDIO AMBIENTE*	2	1
DROGAK / *DROGAS*	2	3
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / *PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES*	1	4
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / *PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA*	1	0
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,…) / *PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,…)*	1	2
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA… / *CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO,…*	1	2
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / *VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES*	1	2
FAMILIA	1	0
USTELKERIA ETA IRUZURRA / *CORRUPCIÓN Y FRAUDE*	0	1
JUSTIZIAREN FUNTZIONAMENDUA / *FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA*	0	2
BESTE ARAZO BATZUK / *OTROS PROBLEMAS*	2	4

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO. EAEN EAEKO ARAZOEI BURUZ GALDETU DA ETA ESTATUAN ESPAINIAKO ARAZOEI BURUZ / *SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS. EN LA CAPV SE HA PREGUNTADO ACERCA DE LOS PROBLEMAS DE LA CAPV Y EN EL ESTADO ACERCA DE LOS PROBLEMAS DE ESPAÑA.*

** CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): 2.749 IKERKETA, 2008KO URTARRILEKO BAROMETROA. ESPAINIAKO ARAZOEZ GALDETU DA. DATUAK BIRIBILDU DIRA DEZIMALAK KENDUTA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): ESTUDIO Nº 2.749 CORRESPONDIENTE AL BARÓMETRO DE ENERO DE 2008. SE PREGUNTA POR LOS PROBLEMAS DE ESPAÑA. LOS DATOS HAN SIDO REDONDEADOS ELIMINANDO DECIMALES*

*** ESTATUAN BAKARRIK INDARKERIA ETA EGOERA POLITIKOA (GOBERNUA, ALDERDIAK, NAZIONALISMOAK,…) AIPATU DIRA, EZ EUSKAL GATAZKA POLITIKOA EDOTA BAKE PROZESUA / *EN EL ESTADO SÓLO SE MENCIONAN EL TERRORISMO Y LA SITUACIÓN POLÍTICA (GOBIERNO, PARTIDOS, NACIONALISMOS,…), NO EL CONFLICTO POLÍTICO VASCO O EL PROCESO DE PAZ.*

☑ Estatuko herritarrek EAEkoek baino gehiago aipatu dituzte arazo ekonomikoak, immigrazioa eta delinkuentzia eta segurtasun falta. Aldiz, EAEkoek Estatukoek baino gehiago aipatu dituzte etxebizitza, indarkeria eta terrorismoa eta egoera politikoa.

☑ Las y los ciudadanos del Estado han mencionado más que los de la CAPV los problemas económicos, la inmigración y la delincuencia y la inseguridad ciudadana. Por el contrario, la ciudadanía de la CAPV menciona más que la del Estado la vivienda, la violencia y el terrorismo y la situación política.



Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko eta Estatuko egoera / *Situación de la CAPV y del Estado*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / *TOTALES Y EVOLUCIÓN)*

Oro har, 0-tik 10 puntutara doan eskala erabiliz, zeinetan 0ak gauzak oso gaizki doazela esan nahi duen, eta 10ak oso ongi doazela, zure ustez, nola doaz gauzak Euskadiko Komunitate Autonomoan gaur egun? Eta Estatu osoan gauzak nola doazela uste duzu? / *Utilizando una escala de 0 a 10 puntos, en la que el 0 significa que las cosas van muy mal, y el 10 significa que las cosas van muy bien, ¿cómo cree que marchan actualmente las cosas en el País Vasco? ¿Y a nivel de todo el Estado cómo cree que marchan ahora las cosas?*



☑ EAEko egoera Estatukoa baino hobeto baloratu dute herritarrek. Hala ere, bai EAEko egoerari emandako puntuazioa, bai Estatukoarena apur bat jaitsi egin dira aurreko neurketekin alderatuz.

☑ La ciudadanía valora mejor la situación de la CAPV que la del Estado. Sin embargo, las puntuaciones tanto de la situación de la CAPV como la del Estado han descendido con respecto a anteriores mediciones.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko eta Estatuko egoera / *Situación de la CAPV y del Estado*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

Oro har, 0-tik 10 puntutara doan eskala erabiliz, zeinetan 0ak gauzak oso gaizki doazela esan nahi duen, eta 10ak oso ongi doazela, zure ustez, nola doaz gauzak Euskadiko Komunitate Autonomoan gaur egun? Eta Estatu osoan gauzak nola doazela uste duzu? / *Utilizando una escala de 0 a 10 puntos, en la que el 0 significa que las cosas van muy mal, y el 10 significa que las cosas van muy bien, ¿cómo cree que marchan actualmente las cosas en el País Vasco? ¿Y a nivel de todo el Estado cómo cree que marchan ahora las cosas?*

(0-10 ARTEKO BATEZBESTEKOA) / *(MEDIA 0-10)*	2008KO URTARRILA *ENERO 2008*	LURRALDEA / *TERRITORIO*			SEXUA / *SEXO*		ADIN TALDEAK *GRUPOS DE EDAD*				BEGIKOTASUN POLITIKOA *SIMPATÍA POLÍTICA*									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA *VARÓN*	EMAKUMEZKOA *MUJER*	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE-EE	PP	EHAK	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ *NINGUNO*	DENAK BERDIN *TODOS POR IGUAL*	ED-EE *NS-NC*
EAEN / *EN LA CAPV*	5,8	5,6	5,9	5,6	5,8	5,8	6,0	5,9	5,6	5,5	6,2	6,2	5,3	5,2	5,6	5,9	5,7	5,5	5,6	5,4
ESTATUAN / *EN EL ESTADO*	5,1	5,1	5,2	4,9	5,0	5,1	5,2	5,3	4,9	4,9	5,0	5,9	5,4	4,1	4,7	5,2	4,7	4,9	4,9	5,0

☑ EAEko egoera baloratzean, kolektibo guztiek ematen diote 0-10 eskalan 5 puntu edo gehiago. Bizkaitarrek eta EAJ, PSE-EE eta EBren jarraitzaileek baloratzen dute hobekien eta zenbat eta gazteago izan ere, orduan eta hobeto baloratzen da EAEko egoera.

☑ Estatuko egoerari dagokionean, baloraziorik onena PSE-EEren eta PPren jarraitzaileek eman dute. Aldiz, 5 puntu baino gutxiago eman diote gipuzkoarrek, 46 urte edo gehiagokoek eta EHAKren, EArren eta Aralarren jarraitzaileek, inolako alderdirekiko begikotasunik ez dutenek eta alderdi guztiekiko begikotasun bera dutela diotenek.

☑ Todos los colectivos dan más de 5 puntos en la escala 0-10 a la situación de la CAPV. Las y los vizcaínos y quienes simpatizan con PNV, PSE-EE y EB son quienes mejor la valoran y a menor edad, también se valora mejor.

☑ En cuanto a la situación del Estado, la mejor valoración es la de quienes simpatizan con PSE-EE y PP. Por el contrario, no le dan el aprobado las y los guipuzcoanos, quienes tienen 46 o más años, quienes simpatizan con EHAK, EA y Aralar, no simpatizan con ninguno o con todos los partidos por igual.

Estatuko egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación estatal*



Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko eta Estatuko egoeraren bilakaera / *Evolución de la situación de la CAPV y del Estado*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / *TOTALES Y EVOLUCIÓN*)

Azken lau urteotan, zure ustez, Euskadik hobera ala txarrera egin du? Eta Espainiak hobera ala txarrera egin du? /
¿En los últimos cuatro años cree ud. que el País Vasco ha mejorado o ha empeorado? ¿Y España ha mejorado o ha empeorado?



* ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LEYÓ A LAS Y LOS ENCUESTADOS.*

☑ Talderik jendetsuenaren ustez EAEko eta Estatuko egoerak ez dira aldatu azken lau urteotan. EAEko egoera hobetu dela uste dutenak gehiago dira okerrera egin duela uste dutenak baino; Estatuaren kasuan antzeko portzentajeak osatzen dituzte batzuk zein besteek.

☑ La opinión más extendida es la de que la situación tanto de la CAPV y como la del Estado no han variado en los últimos cuatro años. Son más quienes creen que la situación de la CAPV ha mejorado que quienes creen que ha empeorado; con respecto al Estado los porcentajes de quienes sostienen estas dos posturas son muy similares.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

EAEko egoeraren bilakaera / *Evolución de la situación de la CAPV*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

Azken lau urteotan, zure ustez, Euskadik hobera ala txarrera egin du? / *¿En los últimos cuatro años cree ud. que el País Vasco ha mejorado o ha empeorado?*

	2008KO URTARRILA *ENERO 2008*	LURRALDEA / *TERRITORIO*			SEXUA / *SEXO*		ADIN TALDEAK *GRUPOS DE EDAD*				BEGIKOTASUN POLITIKOA *SIMPATÍA POLÍTICA*									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA *VARÓN*	EMAKUMEZKOA *MUJER*	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE-EE	PP	EHAK	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ *NINGUNO*	DENAK BERDIN *TODOS POR IGUAL*	ED-EE *NS-NC*
HOBERA EGIN DU / *HA MEJORADO*	32	33	32	33	34	30	35	34	29	31	39	41	26	20	32	37	30	24	29	25
BERDIN JARRAITZEN DU / *ESTÁ IGUAL* *.....	41	35	46	37	42	41	42	42	40	42	41	37	40	47	43	32	42	46	43	42
TXARRERA EGIN DU / *HA EMPEORADO*	23	29	19	27	22	25	17	21	30	25	19	18	33	31	22	28	27	25	23	22
ED-EE / *NS-NC*.....	3	3	3	4	2	4	6	3	1	2	1	4	1	2	2	3	1	5	5	10
(EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)*	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LEYÓ A LAS Y LOS ENCUESTADOS.*



☑ EAEko egoeraren bilakaerari buruzko iritzirik baikorrena gizonezkoek, 45 urte edo gutxiago dituztenek eta EAJ, PSE-EE eta EBren jarraitzaileek azaldu dute. Jarrerarik ezkorrena, aldiz, 46 eta 64 urte bitartekoek eta PPren eta EHAKren jarraitzaileek.

☑ La opinión más positiva sobre la evolución de la situación de la CAPV corresponde a los hombres, quienes tienen 45 años o menos, y las y los simpatizantes de PNV, PSE-EE y EB. La opinión más negativa corresponde a quienes tienen entre 46 y 64 años y quienes simpatizan con PP o con EHAK.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

Estatuko egoeraren bilakaera / *Evolución de la situación del Estado*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

Eta Espainiak hobera ala txarrera egin du? / *¿Y España ha mejorado o ha empeorado?*

	2008KO URTARRILA *ENERO 2008*	LURRALDEA / *TERRITORIO*			SEXUA / *SEXO*		ADIN TALDEAK *GRUPOS DE EDAD*				BEGIKOTASUN POLITIKOA *SIMPATÍA POLÍTICA*									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA *VARÓN*	EMAKUMEZKOA *MUJER*	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE-EE	PP	EHAK	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ *NINGUNO*	DENAK BERDIN *TODOS POR IGUAL*	ED-EE *NS-NC*
HOBERA EGIN DU / *HA MEJORADO*	27	32	25	29	29	25	29	28	25	26	27	41	26	16	29	32	29	20	23	21
BERDIN JARRAITZEN DU / *ESTÁ IGUAL* *.....	38	30	42	35	39	37	39	38	36	39	42	34	30	39	34	27	40	44	38	39
TXARRERA EGIN DU / *HA EMPEORADO*	26	30	23	28	25	27	22	25	29	26	24	17	37	35	28	30	26	27	28	22
ED-EE / *NS-NC*	9	7	10	9	7	11	10	9	9	10	7	9	7	10	9	12	6	9	11	18
(EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)*	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LEYÓ A LAS Y LOS ENCUESTADOS.*

☑ Arabarren eta gipuzkoarren artean bizkaitarren artean baino gehiagok diote Estatuko egoerak hobera egin duela edo okerrera egin duela. Bizkaitarren artean zabalduago dago egoerak berdin jarraitzen duelako pertzepzioa.

☑ PSE-EEren jarraitzaileek gainerakoek baino hobeto baloratu dute Estatuko egoeraren bilakaera eta PPren eta EHAKrenek okerrago.

☑ Entre las y los alaveses y guipuzcoanos son más que entre los vizcaínos quienes creen que la situación ha mejorado o ha empeorado. Entre estos últimos está más extendida la percepción de que la situación está igual.

☑ Las y los simpatizantes de PSE-EE valoran mejor que el resto la situación del Estado y las y los simpatizantes de PP y EHAK peor.



Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

Demokraziaren funtzionamendua EAEn eta Estatuan / *Funcionamiento de la democracia en la CAPV y en el Estado*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / *TOTALES Y EVOLUCIÓN*)

Oro har, zu oso pozik, nahikoa pozik, ez oso pozik ala ez zaude batere pozik demokraziak duen funtzionamenduarekin… /
En general, ¿está Ud. muy satisfecho/a, bastante satisfecho/a, no muy satisfecho/a o nada satisfecho/a con el funcionamiento de la democracia en…



☑ EAEn demokraziak duen funtzionamenduarekiko pozago daude herritarrak Estatuan duenarekiko baino. Hala ere, EAEn demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasun maila nabarmen jaitsi da azken neurketekiko, eta 2004tik izandako mailarik baxuenean dago. Estatuko demokraziari buruzko iritziak berriz ez du aldaketarik izan azken urteotan.

☑ La ciudadanía está más satisfecha con el funcionamiento de la democracia en la CAPV que en el Estado. Sin embargo, la satisfacción con el funcionamiento de la democracia en la CAPV ha bajado de forma notable con respecto a mediciones anteriores, y se encuentran en su nivel más bajo desde 2004. La opinión sobre el funcionamiento de la democracia en el Estado no ha variado en lo súltimos años.

Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*

Demokraziaren funtzionamendua EAEn / *Funcionamiento de la democracia en la CAPV*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

Oro har, zu oso pozik, nahikoa pozik, ez oso pozik ala ez zaude batere pozik demokraziak Euskadin duen funtzionamenduarekin? /
En general, ¿está Ud. muy satisfecho/a, bastante satisfecho/a, no muy satisfecho/a o nada satisfecho/a con el funcionamiento de la democracia en el País Vasco?

	2008KO URTARRILA *ENERO 2008*	LURRALDEA / *TERRITORIO*			SEXUA / *SEXO*		ADIN TALDEAK *GRUPOS DE EDAD*				BEGIKOTASUN POLITIKOA *SIMPATÍA POLÍTICA*									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA *VARÓN*	EMAKUMEZKOA *MUJER*	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE-EE	PP	EHAK	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ *NINGUNO*	DENAK BERDIN *TODOS POR IGUAL*	ED-EE *NS-NC*
OSO POZIK / *MUY SATISFECHO/A*	4	6	4	2	4	4	5	4	3	4	5	7	4	2	2	5	2	3	0	1
NAHIKOA POZIK / *BASTANTE SATISFECHO/A*	35	39	37	29	36	33	34	36	33	34	43	47	38	9	31	38	24	22	36	32
EZ OSO POZIK / *NO MUY SATISFECHO/A*	39	39	38	42	37	42	39	40	40	37	39	34	36	34	48	45	54	43	39	37
BATERE POZIK EZ / *NADA SATISFECHO/A*	19	15	18	22	21	17	18	17	22	19	11	9	21	53	19	12	21	26	15	19
ED-EE / *NS-NC*	4	1	3	5	3	4	4	3	2	6	2	3	1	2	1	0	0	6	10	10
